BIZITEGI ERAIKINA — RAMON Y CAJAL 01

D MAILA





Pablo Zabalo, 1935.

Deskribapena

Kantoiko eraikina, beheko solairua eta jatorriz sei goiko solairu dituena, eta izkinako dorre bat, proiektuan aurreikusi gabea. Mosaikoz estalitako fatxada, balkoien barruan izan ezik. Begiratoki kurbatuak kantoian eta Ramón y Cajal kalera ematen duen ertzeko alboan, balkoiez lotuak. Ramón y Cajal kalera ematen duten balkoien babes hormen behealdeko arraildurak itxi egin dira. Beheko solairua zeramikaz estalita dago zati batez gaur egun. Proiektu komuna Zurriola 24rekin, eta konposizio, apaindura, sekzio, egile eta data bera Zurriola 26-28rekin –baina proiektua ez da baterakoa–, haiekin esku hartzeko unitatea osatuz.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Erregimen espezifikoa.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: Ez.
B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: Ez.
C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
- Ramón y Cajal 1/Zurriola 24-26-28 esku hartzeko unitatearen barruan egotearen ondoriozkoak.
- Lehengoratzea, Ramón y Cajal kalera ematen duten balkoien babes hormen behealdeko zerrendak berriz irekita, atariko harkantoi mailakatua eta estaldura partzialak eta gainjarritako elementuak ezabatzea.
- Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, hala badagokio.